

# Zergatik egin IRRIA aldizkariaren harpidetzak zuen ikastetxean?

Aspaldi ikasi genuen Lontxo Oiartzabal, Marian Bilbatua edota Myriam Nemirovsky bezalako irakasleen eskutik ikastetxeetako geletan haurrentzako aldizkariak edukitzeak garrantzi handia duela, bai hurrek era autonomoan kontsultatzeko, bai irakasleek noiz behinka lanen bat proposatu ahal izateko. Haurrentzat, irakurtzen jakin edo ez, IRRIA aldizkaria erreferente bat izan daiteke.

## **IRRIA testuaren erabilera soziala errazteko tresna**

Ikasleak irakurtzeko euskarri ezberdinak erabiltzea funtsezkoa da, euskarri horien funtzioak eta kodeak ezagutzeko. Horretarako, testu liburuez gain, irakasleok euskarri ezberdinen arteko oreka mantentzen saiatu behar dugu gelan, eta haurrentzako aldizkariak leku esanguratsua dute aukeraketa horretan. Aldizkariaren bidez, irakurle autonomoak sortzen hasiko gara, poliki-poliki beren gustuko irakurgaiak aukeratzeko gai izango direlarik.

## **IRRIA-k testu ezberdinak ezagutu eta irakurtzeko aukera eskaintzen du**

IRRIA aldizkarian, hurrek testu mota ezberdinak aurkituko dituzte: testu literarioak, informatiboak, ludikoak, hausnarketakoak... Ikasleek nahi dituzten testuak aukera ditzakete eta hau oso garrantzitsua da beraien ikasketarako, batetik, irakurketa prozesuan aurrera egiteko aukera eskainiko dielako, eta bestetik, plazerean oinarritutako irakurzaletasuna bultzatuko duelako.

## **IRRIA-k irakurketan eta testuetan oinarritutako irudiak eraikitzen lagunduko die ikasleei**

Bere diseinuaren errepikapenagatik eta bere egituragatik, oraindik irakurtzen ez dakiten ikasleei, testuaren inguruko irudiak eraikitzen lagunduko die aldizkariak: izenburuaren ideia, atal ezberdinen kokapena eta beren funtzioa, atalaren eta bertan agertzen diren pertsonaien arteko harremana... Gela batetik bestera, urte batetik bestera eskura izan dezaketen hileroko argitalpen bat aurkitzeak hainbat irakaspen ekarriko die.

## IRRIA-k, irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, hizkuntzaren inguruko jabekuntza ezberdinak izaten lagunduko die ikasleei

Helduok haurrei irakurketa eskaintzen diegun neurrian, euren adimenean aldaketa ikusgarriak eragingo ditugu, hizkuntza eta emozioak garatzeko eta baita haiekin lotura afektibo sendoa finkatzeko bidean ere. Zuen ikasleek, gure pertsonaiei ipuinetan edo komikietan gertatu zaiena beren hitzez kontatu nahiko dizuete. Filosofo txikien istorio bat bukatzean, agian, eztabaidan hasiko dira edota gogoeta kolektibo bat bideratzeko aukera izango duzue bertan landutako gai baten inguruan. IRRIA aldizkaria, zuen ikastetxeko haurrek hitz soltetatik esaldi konplexuetara egingo duten ibilbidearen bidelagun bilakatuko da!

## IRRIA-k hizkuntza artistikoaren mundua zabalduko die

Gure aldizkariak Euskal Herriko punta puntako ilustratzaileak biltzen ditu, bakoitzak bere estilo propio lantzen dutenak. Marrazkien aniztasun honi esker eta Txatxilipurdi elkarteak eskulanean atalean hileroko proposatzen dizkigun lanak egiteko erabili behar ditugun material askotarikoei esker, gure ikasleek hizkuntza artistiko ezberdinak bereganatzen joan dira.

## IRRIA, ikasle bakoitzaren irakurketa prozesuaren bidelagun bilakatuko da

Adituek behin eta berriz errepikatu izan diguten bezala, oso garrantzitsua da irakasleok edozein adinetako ikasleei irakurtzea. Eta eredu horri erreparatuz, haur txikien gelakoak pertsonaiak edota irudiak ezagutu eta ahoskatzen saiatuko dira. Pixkanaka, hizki edota hitz solte batzuk ezagutzen joango dira eta bost urte inguruan haur batzuk era autonomoan irakurtzen hasiko dira. Lehen ziklo osoan berriz, irakurketa autonomoaren plazera sentituko dute eta IRRIA aldizkaria prozesu honen bidelagun ezin hobea izango da.

**Ez galdu aukera! Harpidetu zure gela IRRIA aldizkarira!**